LEZO

# AGENDA *Kulturala*

2024 // URTARRILA - EKAINA



Lezoko Unibertsitateko Udala

LEZO KULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

ORAIN KULTURA

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

# HAUR ANTZERKIA //////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, ostiraletan, 17:15ean



URTARRILAK **5**
Ostirala 12:00, Bekoerrota kiroldegia

## PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Katxiporreta. **EUSKAL HERRIA** EUS. SARRERA 8€

### Ez gara jaitsiko!

Marimotots zuhaitz baten adabururaigo da, han goitik lurra hobeto ikusteko. Pirritxek eta Porrotxek atzetik jarraituko diote. Eta zuhaitzez zuhaitz eta adarrez adar, espero gabeko lekuetara helduko dira.




URTARRILAK **12**
Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## TEILATUPEAN

Lanku. **EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Lur gaztetxoak haserre ihes egin du gurasoenetik, bere etxea eraiki asmoz, bertan nahi duen guztia egin ahal izateko. Auzuneko orube batean Doro topatu du, munduko bazter guztiak ezagutzen dituen baina inon bizi ez den artista ibiltaria.



OTSAILAK **2**
Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## BO JAUNA

Marie de Jongh. **EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Hiru zerbitzariak ohituta daude Bo jaunak dioen guztia betetzera. Bizitza osoa daramate bere aginduetara, ume bat zenetik. Batzuetan imajinatzen dute zer izan zitekeen mundua haiek nagusi balira, zer den agintea beren eskuetan izatea eta beste inoren menpe ez egotea.



OTSAILAK **16**
Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## ANDEREÑO

Anita Maravillas. **EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Andereñoa ausarta, trebea eta atsegina da. Haurren gaitasunetan sinesten du. Andereñoak eta bere gelako txikiak eskola eder bat eraiki dute elkarrekin, basoan animalia guztientzako tokia duena. Gure irakasleak klasea askatasunez haztea nahi du. Zoritxarrez, nagusiek gerra hasiko dute, eta, horren ondorioz, gure protagonistek atzean utzi beharko dute amestutako eskola.



APIRILAK
**12**
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## PIN PANG

Xabi Larrea. **EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Mundu biribila, zuria, garbia, desiratua...
Pin pong pilotatxo bat bezala!
Azken finean, nork ez du pilotatxo zuririk izan nahi?
Jateko, berotzeko, bizitzeko...
Pilotatxo gehiago ekoiztu, oratu eta suntsitu,
hemen, dena biribila denez, ezerk ez du amaierarik.



APIRILAK
**26**
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## ALI BABA ETA 40 LAPURRAK

Borobil Teatro. **EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Ali Baba, Persiako herri batean bizi den egur biltzaile txiroa da. Egurra biltzen basoan dabilen batean, zarata izugarri batek beldurtuko du. Zuhaitz baten adarren artean ezkutatu eta 40 lapur ikusiko ditu mendian dagoen harkaitz erraldoi baten aurrean gelditzen. Lapurren buruzagiak “ireki zaitez sesamo” esatearekin bat, kobazuloa ireki egingo da.



EKAINAK
**15**
Larunbata
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## ORRATX TXIKI

Orratx!. **EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Kurtso bukaerako emanaldia eskainiko du Orratx! Txiki antzerki taldeak.



## DESKARGATU LEZOKO APP-A

Agenda osoa, sarrerak erosteko aukera eta beste gauza asko kulturako APPan.

## DESCARGATE LA APP DE LEZO

Toda la agenda, opción de compra de entradas y muchas cosas más en la APP de cultura.

# HAUR ZINEMA ////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 17:00etan

**CINE INFANTIL**



URTARRILAK
**27**
Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

## SUPER HEROIEN FAMILIA

Hedvigek 11 urte ditu eta aitaren superheroi-mozorroa txikitu egin du, horregatik, aita ezingo da gehiago ‘Super lehoi’ izan. Baina bere bizitzak sekulako aldaketa jasango du, aita ordezkatuz, hiriko superheroi bihurtzeko aukeratzen duenean. Horretarako, ordea, arazo bakarra dago: baldarra eta nagia da, ez dago oso sasoian eta superheroi izateko baino interesa handiagoa du bideojokotan jolasean ibiltzeko.

---



OTSAILAK
**17**
Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

## OINK-OINK

Babsek 9 urte betetzen dituenean, bere aitonak Oink izeneko txerritxo bat oparitzen dio. Bere gurasoei ez die batere graziarik egiten etxean edukitzeak, baina Babsek Oink txakurtxo bat bezala entrenatzeko baldintzarekin geratzea lortzen du. Baina istorio honetan sorpresa asko egongo dira eta dena ez da dirudiena...

---




MARTXOAK
**16**
Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

## YUKU ETA HIMALAIAKO LOREA

Munduko mendi garaienen tontorretan bizi da eguzki-argi garbienaz elikatzen den landarea… Himalaiako lorea. Yuku sagutxoak familia atzean utzi eta betiereko argia duen lore horren bila abiatuko da bere amamari eskaintzeko, hura laster eramango du-eta sator itsuak Lurraren sakonera. Baina lorea aurkitzeko, Yukuk oztopoz betetako bidea gainditu beharko du...

---




APIRILAK
**20**
Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

## BOO KWAI ETA MUSEOAREN LAPURRETA

Boo Kwai mutiko bihurria unibertso paralelo batera heldu da ustekabean bere asmakizunetako bati esker. Gizon misteriotsu batek mundu berri honetatik ihes egin eta hiriko museoan dagoen Antzinako Shuko Urrezko Makila preziatua lapurtu du. Book eta bere lagunak abentura eroa biziko dute erlikia berreskuratzeko. Lortuko al dute?

# ZINEMA FAMILIAN/////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 19:00etan

**CINE FAMILIAR**



URTARRILAK
**27**
Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

## BIDASOA 2018-2023

2018ko udan Frantziak ezarri zituen Pirinio-Atlantikoko Bidasoako muga naturalaren pasagune batzuen kontrola eta itxierak, Europako gainontzeko herrialdeetara igarotzeko etorkinen sarrera eragozteko, 10 hildako eragin zituen urtebetean. Zazpi pertsona hil dira 2021eko apiriletik Irun eta Hendaia arteko Bidasoa ibaiko uretan itota, eta beste hiruk bizia galdu zuten 2021eko urrian, Ziburun tren baten harrapatuta.

---



MARTXOAK
**16**
Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

## AZTARNAK

Haurtzaroan ereiten al da zoriontasunaren hazia? Gogoratzen ez ditugun lehen urte horiek aztarna sakonak uzten omen dizkigute. Baina, aztarna hori betiko al da? Edo, aldiz, aldatu egiten da? Hau bidaia pertsonal bat da ahaztutako leku horretara, gaur naizen amarengandik izan nintzen umearengana doana.

---




APIRILAK
**20**
Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

## PEREGRINO MODERNOEN OPORRAK

Dokumentalak mundu mailako turismoaren gaia aztertzen du, bere ertz historiko, ekonomiko, sozial eta ideologikoak landuz. Turismoaren inguruan entzuten diren “fenomeno arruntenak alde batera utzi (gentrifikazioa, masifikazioa…)” eta modu sakonagoan heldu nahi dio gaiari. Dokumentala Indotxinan zentratuta dagoenez (Vietnam, Laos, Kanbodia), han grabatutako kontakizunak dira ikus-entzunezkoaren ardatz. “Txangozale internazionalen aisia” aitzakia bikain bilakatuz turismoa parte den jendarte eredu ezberdinen kritika eta autokritika gisako hausnarketak helarazteko.

# HITZALDIA / DANTZA / ANTZERKIA//////////////

Gezala Auditoriumean, igandetan, 19:30ean



URTARRILAK
**14**
Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## LA LLUVIA AMARILLA

**Viridiana. ARAGÓN.** CAST. ENTRADA 8€

La novela de Julio Llamazares fue la primera obra que habló de la España vacía, desde entonces se ha convertido en un clásico de nuestro tiempo. A la fuerza desgarradora del texto se ha unido una cuidada puesta en escena, un impactante trabajo actoral y canciones en directo que lo convierten en una cita imprescindible.



URTARRILAK
**28**
Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## HASTA QUE LA MUERTE NOS SEPARE

**Inconstantes Teatro. MADRID.** CAST. ENTRADA 8€

En el escenario un actor, una actriz y un músico. Una pareja que se acaba de separar después de una larga convivencia en la que ambos han soñado acabar sus vidas junto al otro. Tienen una hija, que hace que esa separación no sea tal, y que la famosa frase del rito católico adquiera todo su vigor: "hasta que la muerte nos separe".



OTSAILAK
**4**
Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## ROSAS TO DANCE

**LaRutan. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Rosas to dancek ibilbide historikoa egin nahi du maisu lanak diren eta dantza garaikidearen ondare kulturalaren oinarriak ezartzen dituzten pieza eszenikoetatik.
Denboran zehar egiten den trazu horri umorea eta azken urteotan LaRutan konpainiak propio bezala lantzen duen lengoaia koreografikoa eman nahi zaizkio.



OTSAILAK
**21**
Asteazkena
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## OIHANA CORTAZAR HITZALDIA

**Lezo-Jaizkibel mendi lasterketa. EUSKAL HERRIA.** EUS

Lezo-Jaizkibel mendi lasterketa ospatzen denean, Oihana Kortazar mendiko lasterkari handiak hitzaldia eskainiko du.
Mendi lasterketetan palmaresik handiena lortu duen euskal korrikalaria da. Zegama Aizkorri, Skyrunning eta kilometro bertikaleko munduko txapelketa irabazi ditu...




OTSAILAK
**25**

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## SHINE

**Lasala. EUSKAL HERRIA** EUS. SARRERA 8€

Zertan sinetsi, gure XXI. mendeko hutsunea baretzen saiatzeko? Autoesklabotzaren ereduaren bitartez, SHINEk gorputzaren objektualizazioa, hedonismoarekiko adikzioa, epelaburtasuna eta ihesbidearen bilaketa etengabea lantzen ditu. Erritu etsia, galdutako fedearen bila. Nola egin dezakegu distira, jada gure buruarengan sinesten ez badugu?



MARTXOAK
**3**

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## APOTHEÓSIS BUFFO

**Xabi Jabato. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Dyonisosek, ardoaren eta antzerkiaren jainko greziarrak, bere bakanalera gonbidatzen gaitu. Baso ilargitik lurpeko iluntasun sakonera; giza tragediaren ahanzturara, estasiara, basatiaren lotsagabekeriara. Legeen, ordena naturalaren eta mundu moralaren gaineko gogoeta taupadatsua.
Aktore bat 30 pertsonaiarentzat.




APIRILAK
**21**

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## ALMAZENEAN

**Txalo produkzioak. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Erretreta hartzeko dagoen arduraduna eta bere lanpostuan ordezkatuko duenak , ezinbestean, bost egunez lantokia partekatuko dute, itxuraz deus gertatzen ez den almazen huts batean. Erlojuaren tik-tak okerra, bi ezezagunen arteko isilune deserosoa, esperoan egotearen amorrazioa, bi pertsonaien arteko gatazka eta gezur handi baten zama.




MAIATZAK
**4-5**

Larunbata eta
igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## UBU ERREGE

**Orratx!. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

UBUren hitz-jarioak basakeria, ankerkeria eta hizkera absurdoa eta zakarra biltzen ditu bere baitan, erakunde eta erregimen guztien parodia batean. Berekoia, kaskarra, mespretxagarria eta zitala da, eta boterearen ur lohitsuetan ugaritzen diren pertsonaien ordezkari leiala. Gerrak, erailketak eta traizioak eragingo ditu, gutxi batzuk aberasteko beste askoren bizitzaren kontura.

# LITERATUR SOLASALDIAK ////////////////////

Asteartetan18:30ean, GAZTELERAZ
Asteazkenetan 18:30ean, EUSKARAZ

Udal liburutegian **CHARLAS LITERARIAS**




URTARRILAK **30** CAST

## EL LADRÓN DE ROSTROS

IBON MARTÍN




OTSAILAK **28** EUSK

## KARENA

Alaine Agirre




MARTXOAK **26** CAST

## LIONEL ASBO

MARTIN AMIS




APIRILAK **24** EUSK

## SOLDADUAREN ITZULERA

REBECCA WEST




MAIATZAK **28** CAST

## EL ESPLENDOR DE LA SEÑORITA JEAN BRODIE

MURIEL SPARK

Euskarazko solasaldiak **Ane Mayoz**ek dinamizatuta izango dira. Gaztelerazkoak, **Javier Minak.**

Las charlas en euskera serán dinamizadas por **Ane Mayoz**. Las del castellano, por **Javier Mina.**






# Gezala Auditoriumek LAGUN TXARTELA

**PREZIOA:**
25€ [Gazte Txartelarekin 20€]
Salgai jarritako txartelen kopurua mugatua izango da eta urteko balioa izango dute.

**ABANTAILAK:**

1. %30eko deskontua Gezala Auditoriumean programatzen den ekitaldi orotan.
2. Urteko programazioaren barruan, **doako bi kontzertu eta doako bi dantza-emanaldi aukeran.**
3. Ostiraletako haurrentzako ekitaldietan, bi sarrera doan.
4. Emanaldiko doako 4 sarrera zozketatuko dira.

**EROSTEKO TOKIA:**
Kultura Saila edo sarrerak online erosteko gunean (kasu honetan txartela posta bidez bidaliko da).

**OHARRA:** Edozein kasutan, sarrerak ekitaldiaren eguna baino lehen eta erosi beharko dira.

- Onlineko erosketan jasoko den pasahitzen bitartez.
- Aldez aurreko salmentan: Lagun Txartela aurkeztu beharko da.

Prozedura berdina doako dantza eta musika ekitaldietan sarrerak eskuratzeko.

***PRECIO:***
*25€ (con Gazte Txartela: 20€)*
*El número de tarjetas a la venta será limitado y su validez será anual.*

***VENTAJAS:***

1. *30% de descuento en toda la agenda cultural del Auditorium Gezala.*
2. *Dentro de la programación anual,* **dos conciertos y dos actuaciones de danza gratuitas a elegir**.
3. *En los actos infantiles de los viernes, dos entradas gratuitas.*
4. *Por cada evento se sortearán 4 entradas gratis.*

***LUGAR DE ADQUISICIÓN:***
*Departamento de Cultura o en venta de entradas on-line (en ese caso la tarjeta será enviada por correo).*

***NOTA:*** *En cualquier caso, las entradas se deberán adquirir con antelación al día del evento.*

- *Para la compra online será necesaria la clave que se sumistrará.*
- *Venta anticipada en taquilla. Será necesaria la presentación de la Lagun Txartela.*

*Esto mismo valdrá para la adquisición de entrada en los eventos gratuitos de danza y música.*

# LESOINU 2024 /////

OTSAILA

**24** **16:00** **PIANO JAIALDIA.**
Euskal Herriko Musika Eskolako Ikasleekin Gezala Auditoriumean.

MARTXOA

**15** **19:30** **ABESBATZA KONTZERTUA.**
Giltzarri Abesbatza (Lesaka) & Sutargi Abesbatzekin Gurutze Sainduaren Basilikan.

**16** **12:30** **KANTUJIRA.**
Aiton Bordatik abiatuta.

**16** **18:00** **GOSPEL KONTZERTUA.**
Ebanjelari Iztieta Abesbatzarekin (Errenteria), Gurutze Santuaren plazan.

**17** **12:30** **BANDA KONTZERTUA.**
"Danbolin" M.E. (Orio), eta "Tomas Garbizu" M.E. (Lezo), Herri Eskolako patioan.

**17** **19:00** **ABESBATZA KONTZERTUA.**
Landarbaso Abesbatzarekin, Gurutze Sainduaren Basilikan.

**17** **19:30** **DANTZA.**
Gezala Auditoriumean.

**18** **4 saio*** **TAILER AKOFONIKOAK.**
Pau Eliasekin, Gezala Auditoriumean.

**18** **19:00** **AKOFONIKOA KONTZERTUA.**
Pau Eliasekin, Gezala Auditoriumean.

**19** **10:30** **KONTZERTUA.**
"Tomas Garbizu" Musika Eskola. Gezala Auditoriumean, Herri eskolakoentzat.

**20** **18:00** **ZINEMA. Sing Street.**

Lezoko Zinema Ttikiak antolatuta, Gezala Auditoriumean.

**21** **10:30** **KONTZERTUA.**

“Tomas Garbizu” Musika Eskola. Gezala Auditoriumean, Pasaia-Lezo Lizeoko ikasleentzat.

**22** **11:00** **IPUIN MUSIKALA.**

“Tomas Garbizu” LUME-ko Ikasleak. Gezala Auditoriumean.

**22** **19:30** **BANDA KONTZERTUA.**

“Danbolin” M.E. (Orio), Onyarbi M.E.(Hondarribi) eta “Tomas Garbizu”M.E. (Lezo). ORION.

**23** **13:00** **ABESBATZA KONTZERTUA.**

Canciones de siempre (Barañain) - Sutargi (Lezo) Abesbatzak, Gurutze Santuaren plazan.

MAIATZA

**11** **11:00-13:00** **UKELELEKO TAILERRA.**

Marcos Feijoorekin, Musika Eskolan.

**11** **12:30** **KANTUJIRA**

Aiton Bordatik abiatuta.

**11** **19:00** **KONTZERTUA.**

E.H.G.Ikasleak eta TGLUM-ko Taldeak. Gezala Auditoriumean.

**12** **11:00** **DIANA.**

“Tomas Garbizu” Musika Eskolako Txistulariak, kalez-kale.

**12** **12:30** **BANDA KONTZERTUA.**

Gaztela eta Leongo M.E. Elkarteko Banda. Gurutze Santuaren plazan.

# AGENDA
# *Kulturala*

**2024 //**
URTARRILA
EKAINA

**LEZO**

| | **URTARRILA** ENERO | **OTSAILA** FEBRERO | **MARTXOA** MARZO | **APIRILA** ABRIL | **MAIATZA** MAYO |
|---|---|---|---|---|---|
| **HAUR JARDUERA** TEATRO INFANTIL | 5 · 12 | 2 · 16 | | 12 · 26 | |
| **HAUR ZINEMA** CINE INFANTIL | 27 | 17 | 16 | 20 | |
| **ZINEMA FAMILIARRA** CINE FAMILIAR | 27 | | 16 | 20 | |
| **DANTZA** DANZA | | 4 · 25 | | | |
| **ANTZERKIA** TEATRO | 14 · 28 | | 3 | 21 | 4 · 5 |
| **HITZALDIAK** COLOQUIOS | | 21 | | | |
| **LITERATUR SOLASALDIAK** CHARLAS LITERARIAS | 30 | 28 | 26 | 24 | 28 |
| **LESOINU** | | 24 | 15-23 | | 11-12 |